

SOUVENIRS DU MUSÉE BASQUE EUSKAL MUSEOA GOGOAN




En 2025, l'exposition du centenaire se poursuit, l'occasion de porter un regard sur l'ancien musée qui, durant 65 ans, fidélisa un large public. Ce petit journal recueille les témoignages de personnes qui l'ont connu, fréquenté ou qui y ont travaillé : descendants des fondateurs, agents du musée, partenaires, journalistes, scientifiques et chercheurs... **Souvenirs.**

2025ean, Mendeburuko erakusketak segitzen du, eta 65 urtez publiko zabala leial bihurtu zuen museo zaharrari begirada bat emateko aukera ere bada. Egunkari ttipi honek museoa ezagutu zuten, bertan ibili ziren edo han lan egin zuten pertsonen lekukotasunak biltzen ditu: sortzaileen ondokoak, museoko langileak, partaideak, kazetariak, zientzialariak eta ikertzaileak... **Oroitzapenak.**



Le Musée Basque a fermé ses portes



Journal Sud Ouest, 8 juin 1989 - Sud Ouest egunkaria 1989ko ekainaren 8a

Le Musée Basque vers 1930 - Euskal Museoa 1930 inguru ©MBHB

UN ÉDIFICE SYMBOLE SINBOLO ERAIKINA



Olivier RIBETON

Conservateur en chef honoraire. Conservateur du musée de 1988 à 2020.

Dhorezko kontserbatzaile nagusia. 1988tik 2020ra museoko kontserbatzailea.

Lorsque je fus nommé conservateur du Musée Basque et de la Tradition bayonnaise en novembre 1988, je me retrouvais au milieu d'une vive querelle politico-culturelle concernant l'avenir de ce musée en lien avec le projet de création d'un Musée Gramont et d'Histoire de Bayonne. [...] ¹

Michel Duvert, alors président de la Société des Amis du Musée Basque, m'avisait : « *Tu es l'homme des châteaux, tu ne comprendras rien à l'Etxe !* ».²

La salle de la sorcellerie, en 1995 - Sorginkerria gela, 1995ean ©DR



HISTOIRE / MUSÉE BASQUE
Olivier Ribeton, un conservateur de 37 ans
Jean d'une vieille famille de la région, il sera également à la tête du futur Musée d'histoire de Bayonne



Journal Sud Ouest, 18 novembre 1988 - Sud Ouest egunkaria 1988ko azaroaren 18a



Jean Duvertier, journal La feuille, 27 octobre 1989 - La feuille hilabetekaria, 1989ko urriaren 27a

FERMÉ ! HETSIA!



Mikel DUVERT

Anthropologue Président de la Société des Amis du Musée Basque SAMB de 1989 à 1995 et de 1997 à 2003

Antropologoa Euskal Museoaaren Adiskideen Presidentea 1989tik 1995era eta 1997tik 2003ra.

De 1989 à 1991 le Musée basque connut une période des plus agitées. Ce musée était contrôlé. Propriété de la ville, la DRAC (Direction Régionale des Affaires culturelles) en est cogestionnaire, quant à la SAMB (Société des amis du Musée Basque) elle est impliquée dans son animation.

Par décision municipale, il fut fermé autoritairement en 1989. Un emblème fut mis à bas. Plus de Musée, plus de SAMB. C'est alors que Jean Haritschelhar fit de moi le président de cette SAMB, c'était le 17 août 1989.

Une façon de voir : Notre génération venait de « sortir les études basques du presbytère » et de les transférer autour de ce musée à partir duquel notre directeur s'employait à construire une structure universitaire. Des temps nouveaux s'annonçaient. [...]

Ma présidence répondit à un simple souhait : œuvrer pour la réouverture du musée dans de bonnes conditions. [...]

Avec moi, la SAMB partagea donc 10 longues années d'un combat des plus ingrats aux côtés

de l'ancienne direction du Musée, dont Jean Haritschelhar et Manex Pagola, des nouvelles instances (Pizkundera, l'Institut Culturel Basque, etc.) sans oublier une vaillante équipe que je me dois de saluer. Elle fut largement composée de femmes dont certaines étaient des amies et/ou des membres de Lauburu.¹


1989tik 1991ra, nahasmendu handiz betetako garaia ezagutu zuen Euskal Museoa. Museoa kontrolpean zuten. Hiriaren jabegoa, DRAC-KGZN (Kultur Gaien Zuzendaritza Nagusia) kudeatzaile kide zen eta SAMB-EMAE (Euskal Museoa Adiskideen Elkarteak) haren animazioaz arduratzen zen.

Herriko Etxeak erabakirik, autoritarioki hetsia izan zen 1989an. Ikur bat suntsitua izan zen. Museorik ez gehiago, EMAE-rik ez gehiago. Orduan ninduen Jean Haritschelharek, EMAE horren lehendakari bilakarazi, 1989ko agorilaren 17an izan zen.

Ikusmolde bat: Gure belaunaldiak « euskal ikerketak apeztegitik » atera berri zituen eta museora

ingurura eraman. Gure zuzendariak unibertsitate egitura bat sortu nahi zuen bertan. Garai berriak iragartzen ziren. [...]

Nirekin, EMAE-k partekatu zituen borroka latzetako baten hamar urteak Museoko zuzendaritza ohiarekin, Jean Haritschelhar eta Manex Pagola arteko, egitura berriekin (Pizkundera, EKE etab.), omendu behar dudana langile talde suharrak aiantzi gabe. Emazte andana bat zegoen hor, zeinetatik batzuk adiskideak eta/edo Lauburuko kideak ziren.¹ ■



Mikel Duvert et Claude Labat. Journées connaissance du patrimoine sur la mythologie avec l'association Lauburu. 1994 - Mikel Duvert eta Claude Labat, Mitologiari buruzko Ondarearen jakintza egunetan, Lauburu elkartearekin. 1994an ©MBHB



Journal Sud Ouest novembre 1989 - Sud Ouest egunkaria 1989ko azaroan

L'ÉDUCATION AU CŒUR DU MUSÉE HEZKUNTZA MUSEOAREN BARNEAN



Mano CURUTCHARRY

Conservatrice déléguée pour les antiquités et objets d'art.
Pays Basque, arrondissement de Bayonne - Ministère de la Culture.
Responsable du service éducatif du Musée Basque, de 1988 à 2008

Zaharkinen eta arte objektuen kontserbatzaile-ordezkaria. Euskal Herrian - Baionako arrondizamenduan. Kultura Ministerioa. 1988tik 2008ra Euskal Museoko Hezkuntza zerbitzuaren arduraduna.

En 1989, il n'y avait pas de service éducatif au Musée Basque. Jean Haritschelhar le directeur du musée m'a demandé : « *Manoli, c'est quoi, un service éducatif ?* ». Je lui ai répondu : « *Je ne sais pas. On va inventer !* ». Et quand Olivier Ribeton a pris sa suite comme directeur-conservateur, il m'a d'emblée fait confiance. J'étais soutenue par Lauburu et par les Amis du Musée Basque qui ont été extrêmement présents. Manex Pagola a créé le nom et Claude Labat le logo. On a imaginé des actions éducatives avec des intervenants qui venaient spontanément et certains professeurs qui m'ont fait confiance comme Jasone Salaberria et Manex Goyhenetche. J'ai fidélisé le monde scolaire aux collections d'un musée fermé. C'était une aventure collective à laquelle tous les agents du musée participaient, gardiens, régisseur, service des collections, etc. Nous travaillions sur des thématiques, par exemple le Port de Bayonne et nous allions sur le terrain. Et puis nous nous sommes servis des expositions temporaires présentées à Château-Neuf comme supports éducatifs. J'ai également fait travailler les élèves des collèges Marracq et de la Cité Breuer sur les thématiques de l'ouverture du musée et ils ont créé à deux voix le guide junior *Coup de cœur pour le musée*. C'était incroyable car ces classes ne se côtoyaient jamais... Ce service a fonctionné de façon singulière et remarquable dans un musée fermé au public, ce qui a poussé le conseiller de la DRAC de l'époque à suggérer que l'espace éducatif du musée à venir, la future salle *Argitu* (éclairer en basque), se situe au cœur des collections, tout un symbole...²

1989an, ez zen hezkuntza zerbitzurik Euskal Museoa. Jean Haritschelhar, museoko zuzendariak galdegin zidan: « *Manoli, zer da hezkuntza zerbitzu bat?* ». Erantzun nion: « *Ez dakit. Asmatuko dugu!* ». Eta Olivier Ribeton-ek zuzendari-kontserbatzaile gisa segida hartu zuelarik, berehala konfiantza egin zidan. Lauburuk eta Euskal Museoaren Adiskideek sostengatu ninduten, presentzia handia erakutsiz. Beraien baitarik etortzen ziren eskuhartzaileekin eta nire baitan fidatu ziren Jasone Salaberria eta Manex Goyhenetche gisako irakasle batzuekin hezkuntza ekimenak plantan ezarri genituen. Eskoletako mundua museo hetsi bateko bildumei jarraikia egin nuen. Abentura kolektiboa zen, museoko langile guziek, zaintzaileek, kudeatzaileek, bilduma zerbitzuetakoek, etab., haien partea ekartzen baitzuten horretan. Gai batzuen inguruan lan egiten genuen, Baionako Portuari buruz adibidez, eta ondotik lekura berera joaten ginen. Eta Gaztelu-Berrian ikusgai ezarriak ziren aldi bateko erakusketak hezkuntza euskarri gisa erabili genituen. Museoaren irekitzeari buruzko gaiez lan bat eramanarazi nien ere ikasleei (Marracq eta Cité Breuer) eta bi bozetan *Coup de cœur pour le musée* (museorako bihozkada) junior gidaliburua sortu zuten. Sinesgaitza zen klase horiek ez baitziren sekula elkartzen... Zerbitzua ongi ibili zen publikoari hetsia zitzaion museo batean, molde berezi eta ohargarrian eta horrek eraman zuen garai hartako DRAC-eko aholkularia berritzekoa zen museoko hezkuntza esparrua, oraindik sortua ez zen *Argitu* gela, bildumen bihotzean kokatua izan zedin aholkatzera, sinbolo azkarra zinez...² ■



Logo d'Argitu -
Argitu logoa
©MBHB



Le service éducatif Argitu en 1988-1989 - **Argitu hezkuntza zerbitzua 1988-1989an**
©MBHB

ARDI LARRUAZ JANTZI NINTZAN... JE PORTAIS UNE PEAU DE MOUTON...



Xalbat ETCHEGOINBERRY

Gidari eta zaintzailea.
1980tik 2022ra
museoko langilea
Guide et gardien.
En poste au musée,
de 1980 à 2022



Atelier d'anoxie, vers 1989 - **Anoxia tailerra 1989 inguru**
©MBHB

Déménagement des meubles, vers 1989 - **Altzarien mugitzea 1989 inguru**
©MBHB

J'Y SUIS RESTÉ 40 ANS... 40 URTEZ HAN EGON NINTZEN...

Je suis entré au musée en juin 1982 comme garçon de bibliothèque pour assurer l'accueil des lecteurs, le classement des livres, également l'aide au montage des expositions et plus épisodiquement, la présence à l'accueil-caisse de l'entrée du musée. À partir de 1986, l'achat de matériel audiovisuel, de deux projecteurs films 16mm et 8mm va permettre l'organisation de séances de projections, le soir au musée. Idem, l'acquisition d'une caméra vidéo Betamax et d'un lecteur pour la création de films. Je prends en charge toutes ces opérations. Début 1988, commence la campagne photo (argentique) de tous les objets pour les architectes muséographes, et en même temps le récolement (inventaire des collections). Avec l'achat d'un appareil photo et du premier kit studio photos, j'apprends à manipuler ce matériel grâce à la gentillesse d'un photographe Bayonnais (Jean Guyot) qui me montre toutes les techniques de prises de vues en bidouillant du matériel. En 1989, c'est la fermeture du musée et le début du traitement général des collections. La bibliothèque reste ouverte, mais l'arrivée de Marie-Hélène Deliaut au centre de documentation me permet de me former aux traitements préventifs et curatifs des collections et de continuer la prise de photos de tous les objets.

Personnages : Jean Haristchelhar n'est présent qu'à mi-temps ; c'est quelqu'un de très compréhensif et toujours disponible, ce qui est bien pratique pour moi surtout au début... Manex Pagola est la personne qui m'a fait découvrir déjà, un musée, une bibliothèque et surtout l'histoire du Pays Basque et sa culture. À la base, je suis topographe et donc pas du tout fait pour travailler en intérieur. Mais sa passion et son envie de partager a fait que pour un emploi temporaire au musée, j'y suis resté 40 ans pour y faire beaucoup de choses passionnantes et différentes.



Alain ARNOLD

Régisseur des collections. En poste au musée, de 1982 à 2023

Bildumen kudeatzailea. 1982tik 2023ra museoko langilea

Tout le reste de l'équipe (une dizaine à l'époque) a fait aussi que je me sente à ma place dans cette institution.

Souvenirs : les sorties avec Manex pour aller voir ou récupérer des objets au fin fond du pays, des histoires de vie magnifiques. La bonne entente du personnel avec pas mal de petites fiestas très sympas... Quand nos enfants étaient patraques, pas d'arrêt de travail pour les garder, ils venaient au musée la journée et tout le monde y faisait attention et les occupait (un luxe...)²

1982ko ekainean sartu nintzen museoa, liburutegiko langile gisa, irakurleen harreraz, liburuen saikapenaz, bai eta erakusketen muntaketaz eta, noizbehinka ere, museoaren sartzeko kutxaz arduratzeko. 1986tik aitzina, ikus-entzunezko materiala eta 16 mm eta 8mm-ko filmetarako bi proiektagailuren eroskeak, museoa gaueko proiektzioak antolatzeko parada emanen du. Betamax bideo kamera baten eta bideo irakurgailu baten erosteak filmak sortzearena. Operazio guzi hauen ardura hartzen dut. 1988 hastapenean, objektu guzien argazkien (argentikoan) kanpaina, hasten da arkitekto museogra-

J'ai commencé en 1980, juste après l'armée, d'abord six mois comme saisonnier et puis j'ai été embauché par Jean Haritschelhar comme surveillant, guide et aussi pour faire le ménage. Tous les matins nous faisons les parquets à la cire, au ballet brosse et à la cireuse, c'était pas comme aujourd'hui, il n'y avait pas d'entreprises de ménage. Nous nous occupions de l'entretien des salles, l'astiquage des coffres et des cuivres, tout brillait ! J'étais guide aussi et jusqu'à 1989, j'ai assuré beaucoup de visites guidées, surtout au printemps et à l'automne pour les groupes qui venaient très nombreux en bus, beaucoup de personnes du 3e âge. Je portais une peau de mouton pour leur montrer que j'étais un pur Basque et ils étaient ravis. L'été, des étudiants prenaient le relais et se faisaient un peu d'argent avec les pourboires. Le musée était ouvert toute l'année sauf le dimanche et les jours fériés. L'ambiance était très bonne. On cassait la croûte le matin, on buvait l'apéro car le musée fermait entre midi et deux heures. On faisait de bons repas... J'ai travaillé avec Jean Haritschelhar, Manex Pagola, des Messieurs ! Des gens de parole. Et je garde aussi un très bon souvenir d'Olivier Ribeton...³ ■

foentzat inbentarioen egiaztatzearena ere. Argazki tresna bat eta lehen argazki estudio kit-a erosten dugu. Material horren erabiltzen ikasten dut Jean Guyot Baionako argazkilariaren gisakotasunari esker, berak erakusten baitzikit irudi hartzeko teknika guziak, materiala trafikatzu. 1989, Museoaren hestea da eta bildumen tratamendu orokorra. Liburutegiak idekia izaten segitzen du, baina Marie-Hélène Deliaut dokumentazio zentroan sartzearekin bildumen tratamendu prebentibo eta osatzaileari formatzen naiz, objektu guziak argazkitan hartzen segituz, aldi berean.

Pertsonaiak: Jean Haristchelhar denbora erdiz baizik ez da etortzen, pertsona biziki adikorra da eta beti laguntzeko prest eta hau biziki onuragarria zitzaidan, hastapenean bereziki... Manex Pagola izan da hasteko museo bat, liburutegi bat baina batez ere Euskal Herriaren historia eta kultura ezagutarazi dizkidanak. Jatorriz topografoa naiz eta beraz ez batere barne batean lan egiteko prestatua. Baina haren garrak eta partekatzeko gogoak nau, hasiera batean museoa aldi bateko enplegua betetzeko sartu nintzelarik, 40 urtez egonarazi, gauza desberdin eta liluragarri andana bat egiteko bertan. Taldearen gaineratikoari (hamar bat pertsona garai hartan) esker ere naiz ongi sentitu instituzio horretan.

Oroitzapenak: ateraldiak Manexekin objektuak ikustera edo biltzera joateko Euskal Herriaren zolara, bizitzako istorio miresgarriak. Langileen arteko lagun giro ona, besta biziki onekin... Gure haurrak eri zirelarik, lan geldialdirik ez haien zaintzeko, museora ekartzen genituen eta denek zaintzen zituzten (luxua zinez...)² ■



Dans l'action, vers 1989 - **Egintzan, 1989 inguru**
©MBHB


MON PÈRE A CONTRIBUÉ À LA CRÉATION DU MUSÉE BASQUE... NIRE AITAK, EUSKAL MUSEOAREN SORTZEKO ESKUHARTU DU...



Jacques Le Tanneur et Pantxika dans le hall de la maison *Pantchika Baita*, vers 1935 - **Jacques Le Tanneur eta Pantxika, Pantchika Baita** etxearen ezkatzan, 1935 inguru © J. LE TANNEUR

Photo de droite : Philippe Veyrin, Jacques Le Tanneur et Pantxika devant la chapelle Saint-Joseph (Bidart), vers 1928 - **Philippe Veyrin, Jacques Le Tanneur eta Pantxika Saint-Joseph kaparean aitzinean**(Bidartean), 1928 inguru © J. LE TANNEUR

Mon père a contribué avec le commandant Boissel, à rassembler toute la documentation et les ressources nécessaires en vue de la création du Musée Basque. Il faisait beaucoup de recherches sur les tombes, les modes de vie des Basques, etc. Il avait fait carrière dans la peinture, le dessin et dans l'écriture. Après avoir signé l'ouvrage *À l'ombre des Platanes* il travaillait à une suite intitulée *Au pays des montagnse bleues* mais il n'a malheureusement pu l'achever. Peut-être en trouverai-je des brouillons ? Le Pays Basque était le pays de sa



Pantxika LE TANNEUR

Fille de Jacques Le Tanneur (1887-1935), illustrateur et journaliste, co-fondateur du Musée Basque.

Jacques Le Tanneur irudigile, kazetari eta Euskal Museo'ko sortzaileetakoaren alaba.



mère, une excellente portraitiste. Je conserve un fusain qui représente mon père à douze ans. Il avait beaucoup d'amis comme Pierre Loti qui lui avait demandé des renseignements sur les mœurs basques pour son livre Ramuntcho, Philippe Veyrin dont nous avons quelques toiles. En 1929, mon père avait fait construire à Bidart, la maison *Pantchika Baita*. Mon prénom n'était pas écrit avec un x car à l'époque, on faisait beaucoup de concessions au français. Sur la photo, nous posons dans le hall de la maison, il doit avoir environ 46 ans et moi 7 ans. Derrière

nous, une peinture de son ami Ramiro Arrue, accrochée au-dessus d'un magnifique coffre*. Du Musée Basque, je me rappelle d'un autre coffre, pas aussi joli que le mien mais entièrement sculpté et de beaucoup de beaux tableaux. ** Gracianne Harismendy, nièce de Pantxika et petite nièce de Jacques Le Tanneur, nous a confié que d'après la correspondance de Philippe Veyrin à Jacques le Tanneur, le coffre avait été hébergé au Musée Basque, pendant la construction de la maison...*⁵

—

Nire aitak, Boissel komandantearekin batera, eskuhartu zuen Euskal Museoaren sortzeko xedeari erantzuteko beharrezkoak ziren dokumentazio eta baliabideen bilketan. Euskal Herriarren hilarriez, bizi moduez, etab. ikerketa anitz burutzen zituen. Marrazkilaritzan, margolaritzan eta idazketan arizan zen. À l'ombre des Platanes liburua idatzi ondotik, Au pays des montagnes bleues izeneko segida idazten hasi zen, baina, zoritxarrez ez zuen bukatu ahal izan. Honen zirriborro batzuk atzeman ditzazket behar bada? Potretagile bikaina izandako haren amaren herria zen Euskal Herria. Nire aita hamabi urtetan irudikatzen duen ikatz-marrazki bat dut oraindik. Adiskide anitz zituen, hala nola Pierre Loti Ramuntcho liburua idazteko euskal ohiturez xehetasunak eskatu zizkiona edo margolan batzuk eskaini zizkigun Philippe Veyrin bezalakoak. 1929an, Pantchika Baita etxea eraikiarazi zuen nire aitak Bidarten. Nire izena ez zen x batekin idatzia

garai hartan, frantseserari kontzesio anitz egiten zitzaiolako. Argazkian, etxeko ezkaratzen gaude, 46 urte inguru ditu eta nik 7 urte ditut. Gure gibelean, kutxa biziki eder baten gainean zintzilikatua den Ramiro Arrue haren adiskidearen margolana*. Euskal Museoari doakionez beste kutxa batez, nirea bezain ederra ez baina osoki zizelkatua zena, eta margolan biziki ederrez gogoratzen naiz.

** Gracianne Harismendy, Pantxikaren iloba eta Jacques Le Tanneur-en birrilobak erran digu Philippe Veyrin-ek Jacques le Tanneur-i idatzi gutun batzuen arabera, kutxa Euskal Museoan atxikia izan zela, etxea bukatua izan arte...*⁵ ■



Photo de fond : Jacques Le Tanneur et Pantxika devant la maison *Pantchika Baita*, vers 1935 - **Jacques Le Tanneur eta Pantxika, Pantchika Baita** etxearen aitzinean, 1935 inguru. ©J. LE TANNEUR



Le cimetière de Louis Colas, Musée Basque vers 1930 - **Louis Colas-en** ilerria. **Euskal Museoan, 1930 inguru** ©MBHB



Louis Colas au milieu de ses élèves du Lycée Marracq vers 1893-1894 - **Louis Colas, bere Marracq lizeoko ikasleen edian, 1893-1894 inguru** © A.-M. GALÉ



Carnet de Louis Colas - **Louis Colas-en** liburuxka © A.-M. GALÉ

Logo du musée dessiné par L. Colas - **Museoko logoa. I Colas-ek eginik** ©MBHB



NOSTALGIE DE L'ANCIEN MUSÉE MUSEO OHIAREN MINA



Xabi HARITSCHELHAR

Fils de Jean Haritschelhar (1923-2013), directeur du Musée Basque et de la Tradition Bayonnaise, de 1962 à 1988.

Jean Haritschelhar (1923-2013), 1962tik 1988ra Baionako Euskal Museoan izan zuzendariaren semea.

Même si le Musée Basque actuel est plus grand, plus aéré et correspond davantage aux standards de la muséographie des années 2000, comment ne pourrais-je pas ressentir de la nostalgie pour l'ancien Musée avec sa petite entrée rue Marengo ?

Déjà, 12 ans pour restaurer et agrandir le Musée Basque m'a paru très long et incompréhensible (cinq ans pour reconstruire Notre Dame de Paris...). La visite commençait par gravir ce magnifique escalier qui existe toujours et en parcourant les différentes salles je pénétrais dans la chaleur et l'intimité d'une maison qui alliait à la fois tradition, mode de vie et culture basques. J'aimais particulièrement les petits coins et recoins des salles des métiers (sandalier, chocolatier, etc.) et à mes 12-14ans, cette mystérieuse salle de la sorcellerie d'où une étrange ambiance se dégageait et que je n'arrivais pas encore à définir. Tout à fait en bas, les stèles discoïdales disposées dans un carré de verdure appelaient instinctivement au recueillement et au silence avec une pensée pour nos lointains ancêtres.

Enfin, deux petites anecdotes personnelles : je me rappellerai toujours, dans les années 1960-70, de mon père, quand il rentrait à midi du Musée, annonçant « triomphalement » le nombre de visiteurs de la veille qui battait un nouveau record grâce aux journées pluvieuses du mois d'août. De même, pendant une période politique particulièrement chaude au Pays Basque, lors de mes sorties nocturnes pour afficher, mon père me rappelait souvent : *« N'oublie pas de glisser une affiche sous la porte du Musée ! »*²

Oraingo Museoa handiagoa, aireztatuagoa izanik, 2000 hamarkadako museografiaren estandarrei egokiagoa bazaie ere, nola egon naiteke Museo ohiaren, Marengo karrikako sartze tiapiaren nostalgiarik sentitutu gabe?

Lehenik, 12 urte Euskal Museoa zaharbertitzeko eta handitzeko, biziki luzea eta sinesgaitza dirudit (Bost urte Pariseko Notre Dame berriz altxatzeko...). Beti aurkitzen den eskailer miresgarri hura igaitean hasten zen bisita eta gela desberdinetan sartuz, ohidura, euskal bizimodua eta kultura aldi berean uztartzen zituen etxe bateko berotasunean eta intimitatean murgiltzen nintzen. Lanbideen gelako (espartingintza, xokolategintza, etab.) xoko eta kanttuak nituen bereziki gustuko, bai eta, 12-14 urtetan, oraindik zehazten lortzen ez nuen giro berezia jalgarazten zuen sorgingoaren gela misteriotso hura. Arrunt behearean, berdegune karratu batean ezarritako gizonarriek senez bildutasunera eta isiltzera deitzen gintuzten gure aitzinako arbasoez gogoratzuz. Azkenik, bi anekdota pertsonal ttipi: Beti oroituko naiz, 1960-70 hamarkadan, nire aitak, eguerditan Museotik sartzen zelarik, « garaipenezko » jarrera batekin, agorrieko egun euritsuei esker errekor berria gaintitzen zuen bezperako bisitarien kopurua emanez. Era berean, Euskal Herrian bizi genuen egokera politiko aski beroaren garaian, gauaz afiztatzera ateratzen nintzelarik, nire aitak usu errepikatzen zidan: *«Ez ezakala ahan'tz afitxa bat Museo'ko atearen azpitik sartzea!..»*² ■



Inauguration du parvis Jean Haritschelhar, devant le Musée Basque, décembre 2023 - **Jean Haritschelhar-en atariaren estreinaldia Euskal Museoaren aitzinean, 2023ko abenduan** ©DR



Michel COLAS

Petit-fils de Louis Colas (1869-1929), historien-géographe. Auteur de : La tombe basque (1923) ; L'habitation basque (1925) ; Le mobilier basque (1927).

Louis Colas-en biloba (1869-1929), historialari-geografoa. La tombe basque (1923), L'habitation basque (1925), Le mobilier basque (1927) liburuen autorea.

Mon grand-père qui avait grandement participé à la fondation du Musée Basque et de la Tradition bayonnaise avec ses amis William Boissel, Ramiro Arrue, Jacques Le Tanneur, Georges Hérelle, Pablo Tillac, Philippe Veyrin, Camille Jullian, etc., en avait conçu le cimetière basque. Avec l'aide de maires, curés et autres amis, il avait collecté des discoïdales dans toute la région. Mon père qui était à l'époque ingénieur agronome au Cameroun, venait lui prêter main forte lorsqu'il rentrait au pays. Ainsi, quand j'étais élève au Lycée de Biarritz et que les professeurs nous emmenaient voir le Musée Basque, j'étais très fier de dire que c'était mon père et mon grand-père qui avaient aménagé l'espace d'exposition des pierres tombales. Alors en 2001, lorsque je proposai à ma femme Véronique de lui montrer le musée, quelques temps après sa réouverture, quelle ne fut pas ma surprise de constater que le vieux cimetière avait disparu et cédé la place à un espace moderne dans lequel les discoïdales étaient présentées au public, juchées sur des socles en « plastique ». Je fis part de ma déception au conservateur M. Ribeton.

LE CIMETIÈRE BASQUE DE LOUIS COLAS LOUIS COLAS-EN EUSKAL HILERRIA

Nous quittâmes les lieux pour aller chercher un peu de réconfort chez le chocolatier Cazenave et, en passant devant la vitrine d'une agence immobilière, sous les arceaux juste en face du musée, je découvris l'annonce d'une ferme à vendre dans le petit village de Montory en Soule. Nous en fîmes l'acquisition et c'est ainsi que l'etxe *Sallenave* fut une belle consolation suite au choc produit par la visite du nouveau musée qui avait perdu l'âme de l'ancien...²

—

Museoko euskal hilerria apailatu zuen nire aitatxik, William Boissel, Ramiro Arrue, Jacques Le Tanneur, Georges Hérelle, Pablo Tillac, Philippe Veyrin, Camille Jullian, etab. adiskideekin batera Baionako Euskal Museoaren sorreran parte ederra hartu zuen. Auzapez, apez eta beste adiskide batzuen laguntzarekin eskualde guziko gizonarriak bildumatu zituen. Orduan Kamerunen ingeniari agronoma zen nire aitak laguntzen zuen ere herrira itzultzen zen aldi oro.

Horrela, Biarritzeko Lizeoan ikasle nintzenean, gure irakasleek Euskal Museoa ikustera eramaten gintuztelarik, harrotasun handiz jakinarazten nuen nire aitak eta nire aitatxik zutela hilarrien erakusketa esparrua antolatu. Orduan, 2001ean, Véronique nire emazteari proposatu niolarik museoa erakustea, berriz ireki eta zenbait denbora geroago, sorpresa handia izan nuen ohartzean hilerri zaharra desgertu zela, gizonarriak publikoari «plastikozko» oinarrien gainean plantaturik erakusgai eskaintzen zien esparru moderno bati lekua uzteko. Nire atsegabe handia Olivier Ribeton kontserbatzaileari adierazi nion.

Lekuak hustu genituen Cazenave te saloira joanez bihotzak berotzen entsatzeko. Bidean, arkupean, pareko etxe agentzia baten aitzinetik pasatzean, erakusleihoan ikusi nuen Zuberoan, Muntori herri ttipian etxalde bat salgai zela. Erosi genuen eta hala *Sallenave* etxea kontsolazio ederra izan zen bere antzinako arima galdu zuen museo berriaren bisitak utzi zigun iharrausalditik lekora.² ■

JEAN HARITSCHELHAR-
EN « EUSKALZALETASUN »
PROGRESIBOA GARATZEN
IKUSI DUT... J'AI ÉTÉ LE
TÉMOIN DE LA PROGRESSIVE
« BASQUISATION » DE
JEAN HARITSCHELHAR...

Iruditzen zitzaidan Museoko gelek egiatik ahal bezainbat hurbilduz irudikatzen zutela euskal etxalde tradizionala eta bertako tresneria, deus ez nekien itsasoko biziaz eta pentsatzen nuen Baionari eskaini zatia ez zela jatorrikoa, juduar munduari buruzko gelatik kanpo, orduan ezagutzen baitnuen baionar judu bat, juduar eta baionar kulturaren zale kartsua zen Lévy Jauna.

Liburutegia erabili dut baina municipal baina gutiago eta Manex Pagolaren laguntza paregabea izan da. Elkarteek egoitzarik ez zuten, gutunontzi gisa erabiltzen zuten orduan museoa.

Jean Haritschelharekin lan egin nuen lehenik Ikas-eko idazkaria nintzelarik, Danielle Pilote eta Manex Goyhenetchekin lan eginez. Luzaz ere Pizkundeko bilkuran ibili nintzen talde horren dokumentua idazten, Jean Haritschelhar buru zelarik.

Euskal kulturaren aurkako erasoen aurrean, Jean Haritschelhar-en euskalzaletasun progresiboa garatzen, bere gogo gero eta argikiago agertzen ikusi dut.

Baina tesia egin nuen haren eta Louis Fossaten zuzendaritzapean eta ene epaimahaikoa izan zen. Bestalde denbora hartan Museotik kanpo izan zituen gorabeherak hurbiletik segitu nituen.

Arranguratzen nauena da museoaren etorkizuna, euskararen etorkizuna ezaguten ditugun erauntsi guzien gatik.³

J'avais l'impression que les salles du Musée représentaient assez fidèlement la ferme traditionnelle basque et son outillage, j'ignorais la vie maritime et la partie sur Bayonne me semblait être une pièce rapportée sauf la salle consacrée au monde juif, car je connaissais alors un juif bayonnais, Monsieur Lévy, féru de culture juive et bayonnaise. J'ai fréquenté également le centre de documentation du musée, cependant moins que la Bibliothèque municipale. Mais je dois dire que le soutien de Manex Pagola a été exceptionnel. Aucune association n'avait de local, donc le musée faisait office de boîte aux lettres. J'ai donc travaillé avec Jean Haritschelhar lorsque j'étais le secrétaire d'Ikas et collaboré avec Danielle Pilote et Manex Goyhenetche. Pendant longtemps, j'ai participé aux réunions de Pizkundera pour rédiger les rapports du groupe dirigé par Jean Haritschelhar. Face aux



Xarles
VIDEGAIN

Hizkuntzalari
Linguiste

attaques répétées contre la culture basque, j'ai été le témoin de sa progressive « basquisation », je l'ai vu s'affirmer. Et bien sûr j'ai mené ma thèse sous sa direction (il faisait partie de mon jury) et celle de Louis Fossat. Par ailleurs, durant cette période, j'ai suivi de près les incidents qui se sont déroulés à l'extérieur du Musée. Aujourd'hui, ce qui m'inquiète, c'est l'avenir du musée, l'avenir de la langue basque à cause de tous les bouleversements que nous connaissons.³ ■

Journal Sud Ouest
années 90 - Sud Ouest
egunkaria 1990ko
hamarkadan




1^{er} - 1. RPIMA,
1972 ©DR



Salle de lecture vers
1970-80 - Irakurketa gela
1970-80 inguru ©MBHB

UNE FERME EN PLEINE VILLE
HIRI BARNEKO BASERRI BAT



Allande
BOUTIN

Journaliste
Kazetaria



Allande
Boutin
(années
80)
Allande
Boutin, 1980
inguru ©DR

Dans l'ancien musée -
Museo zaharran ©MBHB

Je revoyais ce Pays Basque rural que j'avais vécu. En comprenais mieux les ressorts, et découvrais aussi les Basques partis à la conquête du monde, la pêche, l'histoire de Bayonne, les sports basques, les riches collections de peintures. Que de portes ouvertes sur un univers que je désirais être mien. Le Musée Basque en était la clé et l'est aujourd'hui plus encore.²

Baionako Euskal Museoaren ataria lehen aldiko iragan nuelarik, 70 hamarkadaren bukaeran, hiri barneko etxalde batean sartzen nintzela iruditu zitzaidan. Nire osaba-zahararen barrukiko sartzea oroitarazten zizkidaten atariko arkupeak eta (oraindik ere) irekitzen ziren eskuineko ate pisu bikoitzeko gaineko zatiak. Ba ziren, beste gelen artean, laborantza mundua aipatzen zutenak, orduan nintzen paristar gaztea hunkitzen eta liluratzen zutenak. Ezagutu nuena berriz aurkitzen nuen: sukaldea eta supazterra, kobre dirdiraraziekin eta oihal brodatu batek apaindu sutondo inguruarekin. Nire ahaideek Zuberoan erabiltzen zituzten laborantzako tresnak, behiak uztarriaz babesteko eta « handiek » mozte lanak egineta belar eta soro « gaineratekoak » biltzeko erabiltzen ziren mantak. Tipei ematen zitzaien eginkizuna zen, eta harro-harro betetzen zutena. Eta errota beteak edo ez beteak zituzten orgak. Museo berrituan ikusgai ezarriak diren haiak, kabalek kurrizten zituzten bide harritsu eta zailak hain zoragarriki oroitarazten dituzten euskarriak: erreiengatik oreka doi-doi atxikitzen zuten orgak.

Bizi izan nuen Euskal Herri baserritar hura berriz agertzen zitzaidan. Honen eragileak hobeki ulertzen nituen eta munduaren konkistatzaera joan ziren Euskal Herriarrak, arrantza, Baionaren historia, euskal kirolak, margolan bilduma aberatsak honela ezagutu nituen. Hainbat ate irekitzen zitzaizkidan nirea nahi nuen unibertsora. Euskal Museoa zen hauen gakoa, eta gaur egun oraindik gehiago hala da.² ■



Ximun Haran et Sho au
Biltxoko vers 1984 -
Ximun Haran eta Sho
Biltxokon 1984 inguru
©HAGIO SHO

Le Musée Basque
vers 1986 - Euskal
Museoa 1986 inguru
©HAGIO SHO



EUSKARA ETA JAPONIERAREN
ARTEKO, EUSKAL KULTURA
ETA JAPONIAR KULTURAREN
ARTEKO ANTZEKOTASUNAK...
DES SIMILITUDES
ENTRE BASQUE ET JAPONAIS,
CULTURES BASQUE
ET JAPONAISE...



HAGIO Sho

Euskararen hizkuntza politika, euskal diasporaren politika eta kultura aniztasunari buruzko irakaslea. Tokyo University of Foreign Studies (TUFS) unibertsitatean. Tokioko Euskal Etxearen sortzaile.

Professeur en politique de la langue basque et politique de la diaspora basque, diversité culturelle. Université des études étrangères de Tokyo (TUFS). Centre d'éducation aux langues et sociétés du monde. Fondateur de l'Euskal Etxe de Tokyo.

1982.ko apirillean, Tokion dagoen Waseda Unibertsitatean kasualitatez euskara ikasten hasi nintzen. Irakaslea hizkuntzalari japoniarra zen, 1979tik 1980ra Euskal Herrian euskara benetan ederki menperatu zuena. Suzuko Tamura andrea zen, zenbat urte geroago euskaltzain ohorezkoa izendatu zutena. Berak ikasitako euskara ez ahazteko, unibertsitate hortan bere kabuz euskararen ikastaldia antolatu zuen. Nik euskara eta Euskal Herriari buruzko ideiak ez neukan arren, jakinminarekin jarraitu nuen ikasten. Eta euskara eta japonieraren arteko, euskal kultura eta japoniar kulturaren arteko antzekotasuna asko nabartzen zaidalako, jarraitu nuen ikasten.

Euskara eta euskal kultura salbatzeko mugimendu sozialak hasieran asko interesatu zitzaizkidan. 1984. urtean lehendabizkoz Euskal Herria bisitatu nuen hiru astetarako. Gero 1986-1987 ikasturtean Tolosa (Toulouse)ko unibertsitatean Jacques Allières irakaslerearengana joan nintzen. Garai hartan zenbait aldiz Baionako Euskal Museoa bisitatu nuen. Aurreko emaillean esan nizun bezala, ezagutu nituen, Manex Pagola, Zabal liburudendako Maite Idirin eta Jokin Apalategi, Gure Irratiako Xipri Arbelbide, Enbatako Ximun Haran, AEKko Ladix Arrosagarai etab. Garai hartako euskal giro abertzale eta intelektuala asko jaso nuela uste dut. Euskal Museo berrian, alegia XXI. mende honetan. Museoko txartela eskatu nuenean frantsesez mintzatzen hasi nintzela uste dut. Baina persona hori euskalduna zela jakin bezain laster euskaraz hasi ginen mintzatzen. Orduan, ondoko beste pertsona bati japonieraz hitz egiten genduela iruditu zitzaion...⁴

En avril 1982, j'ai entrepris des études de basque à l'Université de Waseda de Tokyo. M^{me} Tamura Suzuko, notre professeur, était une Japonaise qui de 1979 à 1980, avait acquis une jolie maîtrise de la langue au Pays Basque et qui fut nommée professeur honoraire de basque quelques années plus tard. C'est pour ne pas oublier le basque qu'elle avait appris, qu'elle organisa l'étude de l'Euskara dans cette université. Quant à moi, je ne connaissais ni la langue basque ni le Pays Basque. Pour autant, j'ai poursuivi mes études, très intéressé par les similitudes entre le basque et le japonais, la culture basque et la culture japonaise.

En 1984, j'ai passé trois semaines au Pays Basque. Et l'année universitaire 1986-1987, j'ai intégré le cours du professeur Jacques Allières au sein de l'université de Toulouse. À cette époque, j'ai visité plusieurs fois le Musée Basque de Bayonne. J'ai rencontré Manex Pagola, Maite Idirin et Jokin Apalategi de la librairie Zabal, Xipri Arbelbide de Gure Irratia, Ximun Haran d'Enbata, Ladix Arrosagaray d'AEK, etc. Je pense avoir été imprégné par l'atmosphère patriotique et intellectuelle basque de cette époque.

Plus tard, au début du XXI^e siècle dans le nouveau musée, alors que je demandai un billet d'entrée en français, je me suis aperçu que la personne de l'accueil savait le basque et nous avons échangé en Euskara. Mais à côté de nous, un visiteur a pensé que nous parlions en japonais...⁴ ■

NOTES - OHARPENAK

1- Extrait du Bulletin du Musée Basque n°202
Euskal Museoaren Aldizkaria 202. zenbakiaren zatia.

2- Propos recueilli par A.-M. Galé
A.-M. Galé lekukotasuna bildurik.

3- Propos en basque et en français, recueillis
par A.-M. Galé. - A.-M. Galé lekukotasunak
frantsesez eta euskaraz bildurik.

4- Propos en basque, recueilli par A.-M. Galé.
A.-M. Galé lekukotasuna euskaraz bildurik.

5- Propos recueilli par Estelle Tréville
et Graciane Harismendy, petite-fille et
nièce de Pantxika le Tanneur.
Estelle Tréville eta Graciane Harismendy,
Pantxika le Tanneur-en biloba eta ilobak
lekukotasuna bildurik.